

Udal talde politikoaren iritzia



AKORDIOEN LEGEGINTZALDIA

Bai, hauxe izan da, EAJ-PNVk Getxoko herritarrekin hartu zuen konpromisoa betetz, elkarrizketaren eta akordioaren legegintzaldia. Euzko Alderdi Jeltzalearen helburu nagusia hitz egitea eta negoziatzea da, udalean ordezkatuta dauden taldeekin elkarguneak aurkitzera iristeraino, geure hauteskunde-programan herritarrei aurkeztu genien ibilbide-orria bete ahal izateko betiere. Azken finean, proiektu berriak garatzeko, Getxok merezi dituen kalitatezko zerbitzu eta programak eskaintzen dituzten ekintza, ekimen eta ekipamenduak bultzatzen. Bai, EAJ-PNV eta PSE-PSOEek erabakiak hartu dituzten udal gobernua aurrekontu-erabakia itxi du Partido Popularrekin. Eta erabaki honi esker aurre-



kontuak onartuko dira eta, horrela, herritarrei ematen diegun zerbitzua hobetzen jarraituko dugu. Bai, hala da; akordioaren legegintzaldian gaude. Akordioak 2015ean hasi ziren, Euzko Alderdi Jeltzaleak eta Euskadiko Alderdi Sozialistak Le-

gegintzaldi Plan bat sortzeko xedez egin zuten gobernu-akordioarekin hain zuzen ere. Horrek Getxo hobetzeko lan egitea ahalbideratu zigun, programa-proposamen anbiziotsu eta interesgarri batetik. Bai, 2016an EH Bildurekin akordioak

lortu genituen, aurrekontua negoziatzeko prozesu batean, eta hori oso garrantzitsua izan zen proiektuak eta ekimenak aurrera ateratzeko, betiere udalak Getxoko herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzu publikoak hobetzeko helburuarekin.

Bai, azken hiru urteetan zenbait elkarrizketa-prozesu bultzatu ditugu, negoziatzeko eta adostasunak lortzeko borondatea egiazkoa izan denean aurrera egin dutenak. Izan ere, batzuek ez dutenean borondate hori erakutsi, ezin izan da hitz egiten hasi ere egin. Ezin baita alde batetik elkarrizketaren aldekoa izan eta, gero, eskua luzatzen dugunean erantzuna eta kontaktua Whatsapp bidez ematea.

PSE-EE
PSOE

AURREKONTUAK

Hurrengo osoko bilkuran udalaren aurrekontua onartuko dugu. Oraingo honetan, Partido Popularren babesarekin, abstentzioaren bidez emango diguna. Duela bi urte EH-Bildurekin adostu genituen, baina oraingoan ezinezkoa izan da, Gobernu Taldeak eta Alderdi Sozialistak onartu ezin zituzten baldintzak eskatu baitituzte. Onartuko dugun aurrekontuaren oinarria edo funtsa EAJ eta PSE-EEren artean 2015-2019 legegintzaldirako sinatutako akordioa da. Aurrekontu hauek **parte hartze izaera** daukate. Herritarrek zenbait fasetan egin dituzte euren ekarpenak. Elementu nagusia **gizarte-koherentsia** da, desberdintasunik gabeko eta bidezko gizartearen aldeko apustua eginez: guztiok pertsona gisa garatzeko beharrezko baldintzak izan beharko ditugu, eta ahulezia-egoeran dauden pertsona nahiz taldeei behar bezala arreta eskaini eta erantzungo zaie. Gizarte arretako programak, gizarte larrialdiko laguntzak, komunitate-prebentzioko programak, gizon eta emakumeen arteko berdintasun politikak bultzatzea, eskola-materialerako bekak, gure gazteak emantzipatzeko etxebizitza-politikarako laguntzak. Ezker eraginkorra izateaz harro gaude.



GETXO GARATZEKO AURREKONTU-AKORDIOA

Akordio historikoa lortu dugu, Getxorentzat oso mesedegarria izango dena. Akordio honen bidez, gure udalerraren egonkortasunaren eta garapenaren aldeko apustua egiten dugu, hain zuzen ere. Gure laguntzari esker, herritarren aspaldiko eskaerei erantzungo zaie behingoz: Areetako Geltokiko Plaza eta Fudurako frontoiak berriztatzea, Neguriko Geltoki zaharra zaharberritzea, edukiontzietan pedalak jartzea, edo komun publikoen sare bat sortzea. Maila sozialean, besteak beste, ETako presoen sendeentzako diru-laguntzak kentzea lortu dugu. Maila ekonomikoan, hiri izaerako merkataritza-zentro bat sortzea da gure apustua, baita merkataritza eta ekintzaile elkartentzako laguntzak gehitzea ere.



BORROKA AURRERA DOA: LEKUALDAKETARIK EZ!



Cs

ERAISPENIK EZ

Romoko Nagusien Etxeko erabiltzaileek oraingo instalazioetan jarraitu nahi dute, hainbat aldiz esan dutenez. Eraikina ez dadila eraitsi nahi dute, baina EAJk eta PSE-EEK kondenatu egin nahi dute, antza denez. EAJ eta PSE-EEK haien eskaerak entzun eta errespetatu beharko lituzkete. Gu aurrean izango gaituzte, makina bat aldiz esan duguna errepikatzen: **ERAISPENIK EZ, LEKU-ALDAKETARIK EZ.** @CsGetxo



ehbildu

GETXON ERE, EAJ ETA PP ESKUTIK HELDUTA

PP-EAJ-PSEk aurrekontu akordioa sinatu dutela iragarri dute, edukirik gabeko antzespren baten aurrean gauden arren. Aurrekontu proposamenak gizarte politiketan murrizketak ezartzen ditu, eta gainerako arloetan ez du ezer aldatzen, alkatetzan salbu, bere aurrekontua handituz. PPrekin akordioa lortu dute, errazena beraiekin egitea zelako, baina zeintzuk dira negoziaketaren ondorioz lortutako onurak? Non daude aldaketak? **Gezurrez jantzi nahi dituzten arren, aurrekontu kontinuitatearen aurrean gaude,**

hobekuntzarik gabekoak. Bada, EAJ-k aurrekontuak eskuin espainolaren alderdi interesen menpe jarri ditu, joko zelaia beste instituzio batzuetan baitute. PPK ar-



gazia lortu nahi du, ez ditu buruan getxoztarrak. Baina kalteak Getxok sufrituko ditu. Horren adibide dira Romoko Nagusien Etxearen defentsan egun itxialdian dauden edadetuak.

Akordioaren aurkezpenean edukirik gabeko konpromisoak azaldu dituzte alde aurretik adostutako partidekin batera. Baina aurrekoa gutxi balitz HAPoren inguruko paktua egin dute, herritarren partaidetzari bizkarra emanez eta gizarte desberdintasunean eta porlanean oinarritutako herri eredia lortzeko hautua egina dutela azaleraziz.